

Xedapen Orokorrak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2087

91/2005 DEKRETUA, apirilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organismoak aukeratzeko prozedura arautzen duen dekretua aldatzen duena.

Otsailaren 19ko 1/1993 Euskal Eskola Publikoaren Legeak 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, ikastetxearen Ordezkaritza Organo Gorenak aukeratuko du zuzendaria, gehiengo absolutuz, ikastetxeko irakasleen artean, betiere ikastetxean, gutxienez, urtebete eman baldin badute eta hiru urte jardun baldin badute irakaskuntzan. Araudiak xedatzen duenaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izendatuko du kargurako horrela aukeratu den zuzendaria, aukeratu ondorengo lehen deialdian zuzendaritza-karguak betetzeko prestakuntza-ikastaro espezifikoak gainditu ondoren.

Halaber, aipatutako artikulua 4. idatz-zatian xedatzen duenez, zuzendaria aukeratzeko aurreko ataletan zehaztutakoaren arabera jokatu ezin baldin bada, ikastetxe berrien kasuan esate baterako, behin-behineko izendatu ahal izango da ikastetxeko zuzendaria lege ezarritako prozedura erabili ezin den aldirako, Ordezkaritza Organo Gorenari entzun ondoren eta lege zehazten den prozedura erabiliz. Behin-behineko aldi horrek ezin du inolaz ere urtebeteko epea gainditu eta Administrazioak, egokitzat joz gero, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango ditu.

Bestalde, Euskal Eskola Publikoaren Legeak 40. artikuluan zehazten duenez, Ordezkaritza Organo Gorenak, zuzendariaren proposamenez, ikasketa-buru bat eta idazkari bat izendatuko ditu irakasleen artean. Hezkuntza-Administrazioak izendatuko ditu kargu horien titularrak. Ikastetxeen kide bakarreko organoen agintaldia hiru urtekoa izango da, aipatutako Legeak 30. artikuluko 3. puntuan xedatutakoaren arabera.

Maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretuak zehazten du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organismoak aukeratzeko prozedura. Dekretu hori Euskal Eskola Publikoaren Legeak xedatzen duenari egokitzeko, aldaketa bat egin behar da aipatutako Dekretuan.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2087

DECRETO 91/2005, de 19 de abril, de modificación del Decreto por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, establece en su artículo 33 que el Director o Directora será elegido por el Órgano Máximo de Representación del centro, por mayoría absoluta, entre el personal docente del mismo que cuente al menos con un año de permanencia en el centro y tres de docencia. Conforme se determine reglamentariamente, el Director o Directora a así elegido será nombrado para su cargo por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación cuando haya superado o supere en la primera convocatoria posterior a su elección los cursos de preparación específica para la cobertura de puestos directivos.

Asimismo, el citado artículo, en su apartado 4, determina que cuando la elección o nombramiento del Director o Directora no sea posible con arreglo a lo establecido en los apartados anteriores, así como en el caso de centros de nueva creación, podrá procederse; oído el Órgano Máximo de Representación y por el procedimiento que reglamentariamente se determine, al nombramiento del Director o Directora del centro con carácter provisional por el periodo en que se prolongue la imposibilidad, sin que pueda superar en ningún caso el plazo de un año, pudiendo la Administración, en su caso, conferir las oportunas comisiones de servicio.

Por otra parte, el artículo 40 de la Ley de la Escuela Pública Vasca señala que el Órgano Máximo de Representación, a propuesta del Director o Directora, designará entre los profesores y profesoras un Jefe o Jefa de Estudios y un Secretario o Secretaria. Los titulares de estos cargos serán nombrados por la Administración educativa. La duración del mandato de los órganos unipersonales de los centros será de tres años, de acuerdo con lo dispuesto en el punto 3 del artículo 30 de la citada Ley.

El procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco está establecido por el Decreto 116/1997, de 13 de mayo. Con objeto de adecuar esta norma a lo establecido en la Ley de la Escuela Pública Vasca, resulta procedente realizar la correspondiente modificación del citado Decreto.

Horren arabera, Euskadiko Eskola Kontseiluak emandako irizpena ezagututa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa entzun eta gero, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko apirilaren 19an egindako bilkuran alde zuzenetik onartu ondoren,

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.— Aldatu egiten da maiatzaren 13ko 116/1197 Dekretuaren 3. artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organismoak aukeratzeko prozedura arautu zuen dekretu horrek. Aldaketaren ondorioz, honela idatzita geldituko da:

«3. artikulua.— Kide bakarreko gobernu-organismoen agintaldiaren iraupena.

Hiru urtekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organismoen agintaldiaren iraupena, Dekretu honen 13. eta 14. artikuluetan agertzen diren kasuetan izan ezik. Kasu horietan urtebetekoa izango da».

Bigarren artikulua.— Aldatu egiten da maiatzaren 13ko 116/1197 Dekretuaren 4. artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organismoak aukeratzeko prozedura arautu zuen dekretu horrek. Aldaketaren ondorioz, honela idatzita geldituko da:

«4. artikulua.— Zuzendarigaia izateko baldintzak.

Ikastetxeko edozein irakaslek bete ahal izango du zuzendari-kargua, ikastetxean, gutxienez, urte bat eta irakasletzan 3 urte eman baldin baditu».

Hirugarren artikulua.— Aldatu egiten da maiatzaren 13ko 116/1197 Dekretuaren 5. artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organismoak aukeratzeko prozedura arautu zuen dekretu horrek. Aldaketaren ondorioz, honela idatzita geldituko da.

«5.1. artikulua.— Dekretu honetan eta berau garatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako arauetan zehaztutako prozeduraren arabera jokatuko da ikastetxeetako lagun bakarreko aginte-organismoak aukeratu eta izendatzeko orduan.

2.— Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak aukeratu du zuzendaria».

Laugarren artikulua.— Aldatu egiten da maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretuaren 10. artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organismoak aukeratzeko prozedura arautu zuen dekretu horrek. Aldaketaren ondorioz, honela idatzita geldituko da:

En su virtud, conocido el dictamen emitido por el Consejo Escolar de Euskadi y oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 19 de abril de 2005,

DISPONGO:

Artículo primero.— Se modifica el artículo 3 del Decreto 116/1997, de 13 de mayo, por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 3.— Duración del mandato de los órganos unipersonales de gobierno.

La duración del mandato de los órganos unipersonales de gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco será de tres años, excepto en los casos previstos en los artículos 13 y 14 de este Decreto, que será de un año».

Artículo segundo.— Se modifica el artículo 4 del Decreto 116/1997, de 13 de mayo, por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 4.— Requisitos para ser candidato a Director o Directora.

Podrá ser candidato a Director o Directora de un centro cualquier persona perteneciente al personal docente del mismo que cuente al menos con un año de permanencia en el centro y tres de docencia».

Artículo tercero.— Se modifica el artículo 5 del Decreto 116/1997, de 13 de mayo, por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 5.1.— La elección y nombramiento de los órganos unipersonales de gobierno de los centros se realizará de acuerdo con el procedimiento establecido en el presente Decreto y de las normas que en desarrollo del mismo se dicten por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

2.— El Director o Directora será elegido por el Órgano Máximo de Representación del centro».

Artículo cuarto.— Se modifica el artículo 10 del Decreto 116/1997, de 13 de mayo, por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado de la forma siguiente:

«10. artikulua.— Ikastetxearen Ordezkaritza Organo Gorenak, aukeratutako zuzendariaren proposamenez, izendatuko ditu ikasketa-burua eta idazkaria, baita Antolamendu eta Jarduera Araudian xedatutakoaren arabera ikastetxean izan daitezkeen gainontzeko kide bakarreko gobernu-organoak ere».

Bosgarren artikulua.— Aldatu egiten da maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretuaren 11. artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organoak aukeratzeko prozedura arautu zuen dekretu horrek. Aldaketaren ondorioz, honela geldituko da idatzita:

«11. artikulua.— Tokian-tokiko Hezkuntza Lurralde Ordezkariek kargurako izendatuko du ikastetxearen Ordezkaritza Organo Gorenak aukeratu duen zuzendaria, gaindituta baditu edo, aukeratu ondorengo lehen deialdian, gainditzen baldin baditu zuzendaritza-karguak betetzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtero deitzen dituen prestakuntza espezifikoko ikastaroak».

Seigarren artikulua.— Aldatu egiten da maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretuaren 12. artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organoak aukeratzeko prozedura arautu zuen dekretu horrek. Aldaketaren ondorioz, honela idatzita geldituko da:

«12 artikulua.— Aurreko artikulua aipatzen dituen ikastaroak gainditu ondoren, Hezkuntza Lurralde Ordezkariek zuzendari izateko aukeratutako izangaiak eta zuzendaritza-taldeko gainontzeko partaideak izendatuko ditu, hiru urteko aldirako eta urte honen uztailearen 1etik aurrerako ondorioetarako».

Zazpigarren artikulua.— Aldatu egiten da maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretuaren 13. artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organoak aukeratzeko prozedura arautu zuen dekretu horrek. Aldaketaren ondorioz, honela idatzia geldituko da:

«13. artikulua.— Zuzendarigaiak ez badaude, gehien-go absoluturik lortu ez baldin badute edo hautatutako izangaiak zuzendaritza-karguak betetzeko prestakuntza espezifikoko ikastaroak gainditu ez baldin baditu, Hezkuntza Lurralde Ordezkariek, ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari entzun ondoren, egokientzat jotzen duen irakaslea izendatuko du zuzendari urtebeteko aldirako, ikastetxean destinoa duen ala ez alde batera utzita. Era berean, denboraldi bererako izendatuko ditu ikastetxeko gainontzeko kide bakarreko organoak, aukeratutako zuzendariak proposatuko dituenak. Behar izanez gero, zerbitzu-eginkizunak emango dira».

«Artículo 10.— El Jefe o Jefa de Estudios y el Secretario o Secretaria así como los demás Órganos Unipersonales de Gobierno que puedan existir en el centro, de conformidad con lo que se disponga en el correspondiente Reglamento de Organización y Funcionamiento, serán designados por el Órgano Máximo de Representación del centro, a propuesta del Director o Directora elegido».

Artículo quinto.— Se modifica el artículo 11 del Decreto 116/1997, de 13 de mayo, por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 11.— El Director o Directora elegido por el Órgano Máximo de Representación del centro será nombrado para su cargo por el correspondiente Delegado o Delegada Territorial de Educación cuando haya superado o supere en la primera convocatoria posterior a su elección los cursos de preparación específica para la cobertura de puestos directivos que, a tal efecto, convocará anualmente el Departamento de Educación, Universidades e Investigación».

Artículo sexto.— Se modifica el artículo 12 del Decreto 116/1997, de 13 de mayo, por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 12.— Una vez superados los cursos a los que se refiere el artículo anterior, el Delegado o Delegada Territorial de Educación procederá al nombramiento de los candidatos elegidos para Director o Directora y de los demás miembros de su Equipo Directivo por un periodo de tres años y con efectos de 1 de julio del año en curso».

Artículo séptimo.— Se modifica el artículo 13 del Decreto 116/1997, de 13 de mayo, por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 13.— Cuando no hayan existido candidatos a Director o Directora o cuando éstos no obtuvieran la mayoría absoluta, o cuando el candidato o candidata elegido no supere los cursos de preparación específica para la cobertura de puestos directivos, el Delegado o Delegada Territorial de Educación, oído el Órgano Máximo de Representación del centro, nombrará Director o Directora por un periodo de un año al profesor o profesora que considere más adecuado, esté o no destinado en el centro. Del mismo modo procederá al nombramiento por el mismo periodo de tiempo de los otros Órganos Unipersonales del centro que serán propuestos por el Director o Directora nombrado. En caso necesario, se concederán las correspondientes comisiones de servicio».

Zortzigarren artikulua.— Aldatu egiten da maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretuaren 14. artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako kide bakarreko gobernu-organismoak aukeratzeko prozedura arautu zuen dekretu horrek. Aldaketaren ondorioz, honela idatzia geratuko da:

«14. artikulua.— Ikastetxe berrietan, aurreko artikuluan adierazitakoaren antzera jokatuko da».

Bederatzigarren artikulua.— Aldatu egiten da maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretuaren azken xedapenetatik bigarrena; Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kide bakarreko gobernu-organismoak aukeratzeko prozedura arautu zuen dekretu horrek. Aldaketaren ondorioz, honela idatzia geratuko da:

«Azken xedapen bigarrena.— Zuzendariak bere funtzioak utziko ditu, bere agintaldiaren bukaeran edo geroa sortutako edozein arrazoiengatik ikastetxeko irakaslea izateari uzten badio.

Aldebiko espedientea bideratu eta gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak agintaldiak bukatu aurretik zuzendaria kargugabetu edo haren funtzioak kendu ahal izango dizkio, dituen eginkizunak nabarmen hausten baldin baditu eta Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren proposamenez. Halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izango du aukeratu-tako zuzendaria kargugabetzeko edo funtzioak kentzeko eskuduntza, ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak horrela proposatzen badu, haren kideek bi here-neko gehiengoz alde aurretik akordioa hartu ondoren. Kasu hauetan, zuzendaria kargugabetzeak edo haren funtzioak kentzeak ikastetxea zuzentzeko dituen ardurak bertan behera geratzea ekarriko du, baina jarraituko du kargurako hautatu zitzaionean ikastetxean betetzen zuen irakasle-funtzioa betetzen».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko apirilaren 19an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

Artículo octavo.— Se modifica el artículo 14 del Decreto 116/1997, de 13 de mayo, por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 14.— En los centros de nueva creación, se procederá de modo análogo al determinado en el artículo anterior».

Artículo noveno.— Se modifica la Disposición Final Segunda del Decreto 116/1997, de 13 de mayo, por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado de la forma siguiente:

«Disposición Final Segunda.— El Director o Directora cesará en sus funciones al término de su mandato o cuando, por cualquier causa sobrevenida, deje de pertenecer al personal docente del centro.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá cesar o suspender al Director o Directora antes del término de dicho mandato cuando incumpla gravemente sus funciones, a propuesta del Órgano Máximo de Representación del centro y previa tramitación de un expediente contradictorio. Asimismo, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá suspender o cesar al Director o Directora elegido cuando el Órgano Máximo de Representación del centro así lo proponga, previo acuerdo de sus miembros adoptado por mayoría de dos tercios. En estos casos, el cese o suspensión del Director o Directora implicará el cese o suspensión en sus responsabilidades de gobierno del centro, manteniendo la función docente que desempeñaba en el centro cuando fue elegido para el cargo».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de abril de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.